

## Gripearen kontrako kanpaina gaur hasiko da eta bakunatzeko aukera izango du nahi duenak

■ Kanpaina batez ere 65 urtetik gorakoei eta gaisotasun kronikoak dituztenei dago zuzendua, baina nahi duena bakunatu liteke ■ Egun osoan anbulategian: goizeko 09:00etatik arratsaldeko 17:00ak arte.

GRIPERAEN kontrako kanpaina jarri du aurten ere martxan Osakidetzak eta gaurtik hasi eta urriaren 29ra arte bakuna hartu ahal izango da goizeko 09:00etatik 17:00ak arte. Gripearen kontrako kanpaina urtero garai honetan egiten da eta, batez ere, talde jakin bat dago zuzenbidea: 65 urtetik gora dituztenei eta gaisotasun kronikoak dituztenei. Hernanin 4.000 pertsona inguru dira arrisku talde hau osatzen dutenak. Hala ere, Carmen Blancok, anbulatorioko zuzendariak, adierazitakoaren arabera edozeinek hartu dezake gripearen kontrako bakuna, arrautzari alerja dioten pertsonak kenduta.

Txertoa hartzear dohanik da, bai arrisku taldean daude-

nentzat eta baita arrisku talde horretatik kampo dauden herritarrentzat ere. Txertoa hartzeo anbulategira joan daiteke, ordurik hartu gabe, eta txertoa bertan eskatu.

**Iaz 3.165 txerto jarri ziren**  
Iaz garai honetan izan zen kanpainan 3.165 lagunek hartu zuten txertoa; duela bi urte baino 465 gehiagok. Aurten ere kanpaina erantzun ona izatea espero dute.

**Gripea etorri aurretik**  
Carmen Blancok, Kronikari azaldu dionez, gripearen kontrako txertoa urteko garai honetan hartzear komeni da neguan harrapatzetan delako gaixotasuna: "epidemia etorri aurretik bakunatu behar da, gripea neguan etortzen

### CARMEN BLANCO:

"Txertoak ez du kalterik ekartzen eta edozeinek hartu dezake, arrautzari alerja diotenek kenduta"

baita". Horrekin batera azaldu digu Gripea iparraldetik datorrela eta neguan etortzen dela honuntza. Gorputzeko tenperatura jaisten denean birusa hartzeko arrisku haundia dago.

Bakunak hartzear gorputzak erantzuten du defentsak sortzen eta horrela gripearen birusa kutsatzean gorputza

prest dago birusari kontra egiteko.

### Urtero hartzten bada hobe

Gripearen kontrako bakuna edozeinek har dezakeela dio Carmen Blancok. Anbulatorioko zuzendariak azaldu duenez, txertoak ez du kalterik ekartzen eta izateketan, bakuna hartutako lekuak molestia txiki bat eragin dezake. Hala ere, arrautzari alerja diotenek ez dute txertoa hartu behar. Gainera, dio Anbulatorioko zuzendariak, urtero hartzten bada gero eta indar gehiago hartzten du gorputzak gripearen kontra borrokaterako garaian: "Zenbat eta urte gehiagotan hartu sortzen diren defentsak orduan eta potentzia gehiago hartzendute". □

**Bildu Hernanik euskeraz ikasi eta bizitzeko deia egiten die herniarrei**

KRONIKARA bidalitako prentsa oharrean dioenez, Bildu Hernanik herniarriak animatu nahi ditu euskeraz ikasi eta bizitzera. Bildu Hernanik euskariegien matrikulazio kanpaina hasi dela aprobetxatu nahi izan du herritarren animatzea. Prentsa oharrean dionez, "euskar herritar gisa, euskerarekiko konpromisoa azaldu behar dugu, euskera ikasi eta euskera maila etengabe hobetuta", eta "ezkertiar eta abertzaleak garenez, kompromisoa hartu behar dugu euskeraz bizitzeko eta gure ingurunea euskalduntzeko".

Bildu Hernanik dio, Hernaniko euskariegiek aukera zabala eskaintzen dutela euskeraz ikasteko eta era berean bere kompromisoa azaldu du: helduen euskaldutzea bultzatzeko, euskeraren normalizazioan lanean ari diren talde eta ekintzak apoiatzeko eta instituzioetatik euskeraren aldeko kompromisoa bultzatzeko. □

**Ezker Batuko Antton Karrera ostegunean Hernanin**

Antton Karrera Ezker Batua taldeko legebiltzarkideak hitzaldia emango du Hernanin, Ezker Batua-Berdearen VI Asanblada eta Ezker Politikaren Erronkak gaiarekin. Hitzaldia datorren ostegunean da, hilak 23, 19:30-ean Biteri kultur etxearen. □

### Lurrikara Hernanin

JOAN den larunbat eguerdian bi lurrikara arin izan ziren Hernanin. Lurrikarak Nafarroako Aoiz inguruaren izan zuten indarrik haundiak baina, eragina Gipuzkoa eta Bizkaia arain ere iritsi zen, Nafarroa guztira bezalaxe. Lehenengoak Richter eskalan 4,5 graduko indarra izan zuen (Aoizen) eta aspaldi Euskal Herriak ezagutu duen haundiak izan da. Eguerdiko 14:52 inguruaren sentitu zen Hernanin eta ez zuen inongo kalterik eragin. □

### FUTBOLA - EMAKUMEEN LIGA

## Hernanik 2-5 galdu Mutrikuren kontra

EMAKUMEEN Ligan, Hernanik nahiako gaizki hasi du denboraldia. Hernaniarrak urduri samar aritu ziren partidu osoan zehar eta mutrikuarrek ondo aprobetxatu zituzten emandako aukerak. Partidua 2-5 bukatzen zen, eta hasiera hasieratik izan ziren aurretek kanpotarrak. Hernanik jokatutako minuturik onenak lehenengo zatiaren erdialdean izan ziren, eta hor oso joku ona egin dezaketela erakutsi zuen Markos Trejoren taldeak. Trejo entrenatzaileak partidu bukaeran Kronikari esan zion, taldeak askoz hobeto jokatu lezake, baina, kontuan hartu behar da aurten aurkari oso gogorrak daudela Hernani dagoen taldean. Horien artean Mutriku eta Errealako besteak beste... □



Hernaniarrak, lehenengo zatia bukatuta.

Aseguruak CATALANA OCCIDENTE  
**Helbide-Berrian Gaude!**  
Atzieta ~ 30 20120 Hernani  
Telf ~ 943~332440  
Fax ~ 943~556602  
  
-Bautista-Biurrarena-Etxegoien

**GSE**  
Lan aholkularitza  
Fiskala  
Kontablea  
  
Tel.: 943 550254  
Faxa: 943 335801  
tzieta 51 - behea 20120 Hernani

**HERNANI HIZKUNTZAK**  
(Gure Ingelesetxea)  
  
ZORIONAK guzintontzat Advanced eta First azterketak gainditzeagatik.  
  
**DATORREN IKASTURTERAKO**  
  
**MATRIKULA ZABALIK**  
  
Deitu Alan/Joe: 943 33 11 08  
KALE NAGUSIA 41, 1

**Fisioterapia**  
**KIMERA**  
Antziola 16 behea. ☎ 943 556 427  
  
**LESIO TRATAMENDUAK:**  
- Traumatologikoak: esgintzeak, kontrakturak,...  
- Reumatologikoak: tendinitis, artrosia,...  
- Neurologikoak: hemiplegiak, paralisiak...  
- Kirol lesioak: fibra hausturak, sobrekargak  
  
**ISTRIPU ASEGURUAK ETA ETXEKO ATENTZIOA**

**TRATAMENDU TEKNIKAK:**  
- Ostepatia  
- Masajea  
- Eskuzko terapia  
- Elektroterapia:  
ultrasonidoak, "onda corta",...



Pintxoak serbitzen lan haundia izan zuten antolatzaleek; odolkia eta gazta bukatu egin ziren.

## Euria eginagatik, Sagar Egunera herritar asko inguratu zen, baina iazko jendetzarik ez

■ Eguerdiko 12:30etatik aurrera izan zen jenderik gehiena ■ Gazteen Trikitixa txapelketa irabazi zuten: Xabier Etxaniz azkoitiarrak eta Ainara Saizar aiarrak.

SAGAR Eguna egin zen atzo Hernanin, Tolare Sagardo Kofradiak antolatuta. Joan den urtean izandako arrakasta iksita, antolatzaleek jendetza haundia espero zuten aurten baina, euriak mugatu zuen atzo jendearen animoa. Hala ere, Gudarien plaza itxuratu zen, eta giro polita izan zen, gehienbat eguerdi parte horretan.

### Odolkia eta gazta bukatu

Sagardo asko edan zuen inguratutako jendeak baina, eguraldiagatik-edo, benetako arrakasta atzo pintxoek izan zuten. Eguerdiko 13:20 inguruko odolkia eta gazta bukatuta zeuden eta txorizoa serbitzen ari ziren. Atzo dena dela, izan ziren jendearen atentzia piztu zuten sagar erakusketa eta demostrazio gehiago ere.

Izan ere, eguerdiko 12:30-ak aldera sagardoa egin zuten aurtengo sagar berriarekin eta betiko modu tradizionalean. Festa antolatzaleek tolare txiki bat ekarria zeukaten eta jendearen aurrean egin zuten demostrazioa. Tolaretik ate-ratako *zizarra* edo *muztioa* jendeari eman zioten probatzeko.

**Gazteen Trikitixa txapelketa**  
Atzoko egunez eta Sagar Egunarekin batera, Gazteen Trikitixa txapelketa ere izan zen Gudarien plazan. 16 urte bitarteko 6 bikote lehiatu ziren, eta onenak Xabier Etxaniz eta Ainara Saizar izan ziren. Bi-garren Yagoba Uranga itziar-tarra eta Saioa Lertxundi aiaarra izan ziren. Gainerako bi-

koteak: Tolosako Unsain anaia, Bengoetxea donostiarra eta Errandonea andoaindarra; eta Hernaniko bi bikote: Kalonje ahizpak; eta Aitziber Errazkin eta Amaia Mujika.

Antolatzaleek Kronikari esan ziotenez, maila oso altua erakutsi dute parte hartzaileek eta jendeak erantzun ona izan du, urtero bezala. □



Txapeldunak: Ainara Saizar aiarra eta Xabier Etxaniz azkoitiarra.

## KIROLA

FUTBOLA	Taldeak	Emaitza
1. Errejonal	Hernani-Zarautz B	3-0
Emakumeen Liga	Hernani-Mutrikua	2-5
Gazteen Liga Nazio	Athletic-Hernani	3-1
Kadeteen Ohoiez	Hernani-Texas	3-0

## ASTEBURUKO EMAITZAK

PELOTA		
<b>Gipuzkoako Txapelketa</b>		
Kadeteak	Eibar/Gamendia-Salberria	22-2
Jubenilak	Elezia-Gomontegi/Gaztelku	22-9
Jubenilak	Zumaiako/Zabala-Huizi	22-14
Jubenilak	Fendiz Goiztorta-Ramos/Ebiria	15-22
Jubenilak	Paulo Juel/Txapagain	21-22
Nagusiek	Bebki/Gascon-San Sebastian	22-20
Nagusiek	Arieta-Zumutza/San Esteban	11-22

## HITZ BITAN



Imanol Kamio ereñotzuarra da Doinu Zale eskolako irakaslea.

### ✓ MUSIKA ESKOLAK

**Doinu Zale musika eskolak hasi du ikasturte berria.** Doinu Zale musika eskolak hasi ditu aurtengo klaseak. Imanol Kamio ereñotzuko musikariak zuzentzen du Doinu Zale musika escola eta ikasteko aukera zabala eskaintzen du. Alde batetik: solfeoa, armonia, korala eta informatika musikala. Eta bestetik instrumentuak: pianoa, trikitixa, akordeoia, tronpetta, panderoa, bateria, bonboak eta kitarra. Ikasketa pertsonalizatua da talde txikiak egiten direlako (7 lagun gehienez). Informazio gehiago nahi duenak deitu: 943 331233 telefonora edo zuzenbide honetatik pasa: Karabel 4, behea.

**Kantuz musika eskolak laster hasiko ditu kitarra eta txistu klaseak.** Kantuz musika eskolak (Aristizabal kalean) kitarra eta txistu klaseak ematen ditu eta laster hasiko ditu aurtengo klaseak. Matrikula ostirala baino lehenago egin behar da: Udaletxeko 2garren pisuan, astelehenetik ostiralerera, goizeko 09:00etatik 13:00etara. Informazio gehiago nahi duenak deitu: 943 337025 (goizetan) edo 943 333212. □

## ZERBITZUAK

### ✓ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYB: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalarri anonimoak: 943 331103
- Alkoholiko anonimo: 943 331103

### + FARMAZIAK

- Egunez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793
- Gauzez: Iturrealde Usurbil. Poligono 13, 9 ☎ 943 363395

## IRAGARKI MERKEAK

Etxeko lanak egiteko eta haurrak zaintzeko pertsona behar da. Goiztan egingo luke lana. Deitu: 689 144 881

Pisua salgai Zikuñagan. 70 m2 eta kampora begira; erreformak egin berri ditu eta bizitzea sartzeko modua dago. Interesatuek deitu: 653 73 79 90

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (**Sta Barbara 42**)

AUXILIAR Administratiboa. Eusko Jaurlaritza, Udaletxeak: Zarautz (6 plaza), Hernani, Usurbil, Beasain, Bergara. Informa zaitez: 943 43 41 27

TXOFERRAK. Plaza fijoak Eusko Jaurlaritza, Udaletxe, Foru Aldundietan. Doaneko informazioa: 943 43 41 27

SUKALDE laguntzaileak, garbitzaileak, serbitzariak. Plaza fijoak: Udaletxe, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundi, eskolatan.. Doaneko informazioa: 943 43 41 27

HAURTZANDEGI publikoak, behar dituzte: irakasleak, edukatzaileak, zaintzaileak, asistentak. Doaneko informazioa: 943 43 41 27

LIBURUTEGIAK, rezeptzionistik. Plaza fijoak: Udaletxe, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundietan. Doaneko informazioa: 943 43 41 27

LABORATORIOKO AUX. Teknikoa. Depuradoratako ur kontrolatzailea, analisi klinikoak. Doaneko informazioa: 943 43 41 27

BASOZAINA, 17 plaza, Administrazio Publiko Saila. Informa Zaitez: 943 43 41 27

KONTSERJEAK, lan postuak, Udaletxe, Eusko Jaurlaritza, Eraikuntza publikoak. Doaneko informazioa: 943 43 41 27

SUHILTZIALE. Postu libreak Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko parketan. Kondizio ekonomiko ezin hobeak. Doaneko informazioa: 943 43 41 27

REZEPZIONISTA-Telefonista. Plaza libreak Eusko Jaurlaritza eta Udaletxeetan. Laster hasteko. Doaneko informazioa: 943 43 41 27